

Atletismo Kirol Teknikari Ikastaroa 2021 – 22ko Erdi Mailako Haiserako Zikloa



Ikastaro hau **araubide bereziko kirol ikasketen barne** dago. Ikasketa horiek hezkuntza sisteman sartuta daude. Beraz, balio akademikoa dute. Bi mailatan egituratzen dira: erdi maila eta goi maila. Atletismo Kirol Teknikariaren titulua erdi mailakoa da eta bi ziklo ditu: hasierako zikloa eta amaierako zikloa.

Ikastaro honen bidez erdi mailako irakaskuntzak hasten dira, Atletismo Kirol Teknikariaren titulua lortzeko asmoz.

Bloke espezifikoa egireko, Nafarroako Kirolaren Eskolak Nafarroako Atletismo Federazioaren laguntza du.

Sarbidea:

Betebehar orokorrak:

Izangaiek betebehar hauetariko bat frogatu beharko dute:

- DBH-ko Gradua izatea (edo baliokidea)
- Goi Mailako Titulua izatea.
- Erdiko mailako kirol irakaskuntzetako sarbide proba gainditzea. Gutxienezko adina 17 urtekoa da (urte naturalean beteta).
- Erdiko mailako graduako lanbide heziketako sarbide proba gainditzea.

Betebehar espezifikoak:

- Sarbide proba espezifikoa gainditzea.
- Ondorengo profilek ez dituzte sarbide proba bereziak egin beharko:
 - 971/2007 Errege Dekretuak Atletismoko modalitatean zehazten dituen goi mailako kirolariek.
 - Nafarroako araudiak edo baliokideak onartzen dituen Atletismoko goi-mailako kirolariek.
 - Azken bi urteetan absolutu kategoriako Espainiako Txapelketako edozein probako lehenengo zortzi postuen artean sailkatzea, behin gutxienez.

Heziketa plana

Bloke komuna:

MODULUAK	ORDUAK 60
Kirol jarreraren oinarriak	20
Lehen laguntza	30
Kirol aktibitate egokitua eta desgaitasuna	5
Kirol antolakuntza	5

Bloke espezifikoa:

MODULUAK	ORDUAK 250
Atletismoren irakaskuntzaren metodologia	85
Atletismoko hastapen aktibitateen antolakuntza	15 (*)
Formakuntza praktikoa	150

(*) Distantziaz

Ikastaroaren garapena

- Ikastaroaren aurkezpena:
2021ko urriaren 15ean (KAIMZ - Larrabide Estadioa)

Bloke espezifikoa:

- Datak: 2021eko urriaren 16tik, 2021eko abenduaren 17ra (praktiken epealdia, aparte).
- Aurrez aurreko azterketak: 2021eko abenduaren 17an.
- Modalitatea: Aurrez aurrekoa, atletismo hastapen aktibitateen antolakuntza ikasgaia ezik (distantziaz egingo dena).
- Aurrez aurreko saioak: Orokorrean, larunbatetan eta igandetan izango dira.
- Praktiken Modulua (150 ordu): 2022ko martxoaren 12tik, ekainaren 19ra.

Bloke komuna:

- Datak: 2022ko urtarrilaren 21tik martxoaren 13ra.
- Aurrez aurreko azterketa: 2021eko martxoaren 26an.
- Modalitatea: Distantziaz (gela birtualaren bidez).

Onartua izateko prozedura:

Aurreinskripzioa:

Aurreinskripzio epea: 2021eko ekainaren 14tik, uztailaren 2ra.

Interesdunek informazio agiri honi erantsitako aurreinskripzio fitxa bete eta Eskolako Idazkaritzan aurkeztu beharko dute edo posta elektronikoaren bidez bidali. Aurreinskripzio fitxarekin batera, 50 €-ko ordainketaren frogagiria aurkeztu behar dute ondoren azaltzen den kontuan:

Jabea: Fundación Miguel Indurain

Kontu korronteko zenbakia: ES 33 2100 3693 23 2210035448 (Caixabank)

Kontzeptua: Atletismoko erdi mailako hasierako zikloko ikastaroan izena ematea.

Ikaslea onartutakoan, zenbateko hori matrikularen zenbatekotik deskontatuko zaio.

Sartzeko berariazko probak ez gainditzeagatik edo plazak mugatzeagatik onartzen ez diren izangaiek aurreinskripzioaren zenbatekoa itzultzeko eskubidea izanen dute. Aldez aurretik izena emateko kuota ordaindu duten izangaiei ez zaie itzuliko, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Sarbide proba espezifikoak

Balditza orokorrak betetzeaz gain, izangaiek sarbide proba espezifikoak gainditu beharko dituzte. **Hezkuntza Sailak** proba hauen deialdia egiten du. Proba hauek gainditu behar dira derrigorrez matrikula egin ahal izateko.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak jarri ditu probak ondorengo datan: **Irailaren 22an** (44/2021 Ebazpena, 2021eko martxoaren 13koa).

Tokia:

Larrabide Estadioa (Zangoza K. 34^a, 31005 Iruña).

Proba horietan parte hartzeko beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta dagokion tasa ordaintzea (45 € / 22,50€ 1. kategoriako familia ugariako kideek / familia ugari berezia eta beste batzuk, doan). Tasa ordaintzeko, ordainketa gutuna erabiliko da. Horren kopia inskripzio inprimakiarekin eta gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da.

Sarrera probetan izena emateko epea irailaren 2an hasi eta irailaren 5ean bukatuko da (14:00ak arte).

Izen ematea ondorengo moduetan egin ahalko da:

- Aurrez aurre: Formakuntza zentroan (Nafarroako Kirol Eskola) edo Hezkuntza Sailaren Erregistro Orokorrean (LHren Plangintza, Antolamendu eta Garapen Atalari zuzendua).
- Telematikoki: Nafarroako Gobernuaren tramiteen fitxatik (*).

Izangaiek, izena emateko inprimakiarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- NAN / Pasaporte / TIE-ren fotokopia.
- Erdi mailako irakaskuntzetan sartzeko baldintza akademikoa betetzen dela egiaztatzen duen agiria.
- Ezgaitasuna frogatzen duen agiria (hala badagokio)
- Salbuespena egiaztatzen duen agiria (hala badagokio)
- Tasa ordaindu izanaren frogagiria.

(*) Informazio gehiagorako edota tramiteak hasteko:

https://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/8290/Pruebas-de-acceso-especificas-para-enseanzas-deportivas-Atletismo

(Eguneratu ahal da)

Matrikulatzeko epea

Sartzeko proba berariazkoak gainditu ondoren, ikastaroan izena emateko, izangaiek eskabide inprimakia bete eta dokumentazio osagarriarekin batera aurkeztu beharko dute Nafarroako Kirol Eskolako idazkaritzan edo helbide elektronikoaren bidez:

formacion@fundacionmiguelindurain.com

- Matrikulatzeko epea: Urriaren 4tik, 7ra (biak barne).

Aurkeztu behar den dokumentazioa:

- Izena emateko eskaera: Nafarroako Kirolaren Eskolako Idazkaritzan aurkeztu beharko da (Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa). Zangoza kalea, 34 - Larrabide estadioa). Legezko beste prozedura batzuen bidez ere tramitatu ahal izango da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu tituluaren edo baliokidearen fotokopia konpultsatua, edo sartzeko baldintza orokorretan agertzen den beste kasuren batena.
- Berariazko sarrera-probak gainditu izanaren ziurtagiria (*). Salbuesteko eskubidea dutenek dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- NAN / Pasaporte / NIE-ren fotokopia.
- Hala badagokio:
 - o Ezgaitasuna frogatzen duten agiriak
 - o Goi mailako/errendimendu handiko kirolariaren egiaztagiria.
 - o Diplomaren homologazioaren, baliozkotzearen edo korrespondentzien egiaztagiriak.

(*) Agiri hau ez da aurkeztu behar izangaiak probak Nafarroan egin baditu.

Matrikulazio kuota:

Matrikulazio kuota: **350 €**

Banketxe kontuan sartu beharko da:

ES 33 2100 3693 23 2210035448 (La Caixa)

Ordaingiria Nafarroako Kirol Eskolako Idazkaritzan aurkeztu beharko da.

Erreferentziazko legeria:

- 1363/2007 Errege Dekretua, urriaren 24koa, araubide bereziko kirol irakaskuntza kudeaketa orokorra ezartzen duena.
- ECD 1209/2014 ECD Agindua, uztailaren 3koa, Atletismo Kirol Teknikariaren tituluaren batez besteko mailako hasierako eta azken zikloen curriculum zehazten duena.
- 43/2012 Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa araubide bereziko kirol irakaskuntzaren erdi mailako hasierako zikloko bloke komunaren egitura eta curriculum ezartzen dituen Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan. Aldatuta 2015eko ekainaren 12ko 58/2015 Foru Aginduaren bitartez.

- 227/2019 Ebazpena, apirilaren 15ekoa, Unibertsitate eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiarena, horren bidez, Nafarroako Kirol Eskolari baimena ematen zaio Atletismoko erdi mailako hasierako eta amaierako heziketa zikloetako kirol irakaskuntzak emateko.
- 44/2021 Ebazpena, martxoaren 13koa, Lanbide Heziketako zuzendari nagusiarena; honen bidez, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako araubide bereziko kirol-irakaskuntzetan berariazko sarrera-probak arautu eta deitzen dira, 2021 - 2022ko ikasturteari dagozkionak.

Informazioa

Eskolako Idazkaritza:

Nafarroako Kirol Eskola (NakirolE)

Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa (Larrabide estadioa)

Zangoza K. 34.a

31005 IRUÑA

Tfnoak.: 848 431585/84

E-mail: formacion@fundacionmiguelindurain.com